

MANUEL GOROSTIDI ETA BONIFAZIO ETXEGARAI: EUSKARA, LEGE ETA EPAITEGIETAN

Azken urteotan pil-pilekoa dugu euskararen auzia. Gero eta sarriago entzun ohi ditugu, nonahi eta noiznahi, euskara epaitegietan eta abarrekoetan erabiltzeko oihuak. Etengabe datoz eskeak halakoetan euskaraz jarduteko. Edu bereko erantzunak, hala ere, ez beti.

Gora-goraka datorkigu lege esparrua euskararen uhinean. Aspalditik dugu euskara, lotsa kenduta eta erdarazko legearen *sancta sanctorum* delako horretan ate joka.

Ate jotze horretan badirudi egunotako zereginak direla euskararen historian lehendabizikoak. Hartara, hori esanaz, euskaldunok argiro erakusten dugu gure ezjakintasuna. Izan ere, oraingoek ez bide ezagutzen aurretiazkoak. Haiiek, oster, sekulako lana egin zuten euren garaian, euskara bera gora baino, maldan behera zihoan hartan.

Beherakada nabari horretan, zeresanik ez, XIX. mendea dugu esanguratsuena, baita ondatzaileena ere, euskararentzat. Ordu arteko foruak, batera zein bestera, ezabatuak ziren, Zuzenbide pribatuko hondar batzuk izan ezik.

XIX. mendeak, jakina denez, Espainiako estatu liberalaren ezarpenarekin batera ekarri zituen, besteak beste, eskola irekiera, hizkuntza nazionalaren zabalkuntza, estatu bateratu ba-